

Mutualiaren PREBENTZIOZKO BEGIRADAK XXII. Lehiaketa 2025

 **Prebentziozko
Begiradak**

Sariaren oinarriak

- 1. Antolatzailea:** MUTUALIA, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen 2. zenbakiko mutua. Gizartea laneko arriskuen prebentzioari buruz sentikortzea da lehiaketaren helburua.
- 2. Parte-hartzaileak:** 18 urtetik gorako argazkilari profesionalek zein zaleek hartu ahal izango dute parte lehiaketan, epaimahaikideek, haien hurbileko senitartekoek eta MUTUALIAko langileek izan ezik. Lehiaketan parte hartzeko ez da ezer ordaindu behar.
- 3. Modalitateak:**
 - Argazki-lehiaketa.
 - Adimen artifizial (AA) bidez sortutako irudien lehiaketa.
 - Bideo laburren lehiaketa.
- 4. Sariak:** Diru-kopuru hauek banatuko dira saritan (*):

• Argazki onenaren saria:	1.200€
• AA bidez sortutako irudi onenaren saria:	600 €
• Bideo labor onenaren saria:	1200 €

Egile bat ezin da saritu kategoriatan batean baino gehiagotan.

** Indarrean den zerga-legedian aurreikusten diren atxikipean aplikatuko zaizkie sariaren zenbatekoari. Dagozkion zerga-ondorioetarako, sariaren zenbatekoa eta dagozkion atxikipean jasotzen dituen ziurtagiri bat emango da.*

- 5. Aurkeztutako materialak** laneko arriskuen prebentzioari buruzkoak izango dira, eta estatuko errealitatera mugatu beharko dute. Laneko istripuak eta gaixotasun profesionalak prebenitzera eta enpresa osasungarria bultzatzera bideratutako mezuek baloratuko dira, eta balorazio positiboa izango dute jardunbide egokiek.
- 6. Materialen ezaugarriak eta bidalketa.**

Materialek jatorrizkoak eta eskusiboki parte-hartzailearenak izan behar dute. Ezingo dute lehiaketan parte hartu aldez aurretik argitaratu direnek edo lehiaketaren batean saria jaso dutenek. Ez dute izan beharko hirugarrenei dagokien eskubiderik.

Argazkiak:

- Ez da onartuko digitalki eraldatutako argazkirik, salbu eta esposizioari, argiztapenari eta zurien balantzeari egindako doikuntza oso txikien kasuetan; beraz, galarazita egongo da lanaren jatorrizko konposizioa aldatzen duten elementuak kentzea eta gehitzea. Jatorrizko fitxategiak gordetzea gomendatzen da, sor litezkeen zalantzak argitu ahal izateko.
- Koloretakoak edo zuri-beltzekoak izan daitezke.
- .JPG formatu digitalean bidali behar dira.
- 6 megapixeiko bereizmena izan behar dute gutxienez.
- Fitxategiak ez ditu izan behar 10 MB baino gehiago.

Argazkiak MUTUALIAra bidali behar dira, **prebentziozkobegiradak@mutualia.eus** helbide elektronikora. Honela identifikatu behar dira: ABIZENA_IZENA_ARGAZKIAREN IZENBURUA

Argazki-fitxategi bakoitzeko, erregistro-formulario bat beteko da. Formulario hori MUTUALIaren webgunean egongo da eskuragarri (**www.mutualia.eus**).

AA bidez sortutako irudiak:

- Estilo errealistarekin sortuak izan behar dute.
- Argazkiak. JPG formatu digitalean bidaliko dira.
- Irudiek 3 megapixeiko bereizmena eduki beharko dute, gutxienez.
- Fitxategiaren tamaina 10 MB-koa izango da gehienez ere.

AA bidez sortutako argazkiak MUTUALIARA bidali behar dira, **prebentziozkobegiradak@mutualia.eus** helbide elektronikora. Honela identifikatu behar dira: ABIZENA_IZENA_AA IRUDIAREN IZENBURUA

AA bidez sortutako argazki-fitxategi bakoitzeko, erregistro-formulario bat beteko da. Formulario hori MUTUALIaren webgunean egongo da eskuragarri (**www.mutualia.eus**).

Bideo laburrak:

- Edozein teknika erabili ahal izango da (animazioa, grabazioa, adimen artifiziala...).
- AA erabiltzen bada, erregistro-formularioan adierazi beharko da.
- Edukia fikziozkoa edo dokumentala izan ahal da, eta genero guztiak onartuko dira (komedia, drama, zientzia-fikzioa, etab.). Jatorrizko ideiak eta lehendik dauden proiektu eta bideoetan oinarritutakoak aurkez daitezke.
- Gehieneko iraupena 20 segundo da.
- Edozein formatutan bidali daitezke, bertikalean nahiz horizontalean.
- Gutxienezko kalitatea: HD.
- Hizkuntza: euskara eta gaztelania. Bi hizkuntzetako azpitituluak baloratuko dira.

Bideo-fitxategiak MUTUALIAra helaraziko dira, **prebentziobideoak@mutualia.eus** helbide elektronikora, Wetransfer plataforma erabiliz, eta bideoa duen fitxategirako esteka erantsiko da. Fitxategia honela identifikatu behar da: ABIZENA_IZENA_BIDEOAREN IZENBURUA

Bideo-fitxategi bakoitzeko, erregistro-formulario bat beteko da. Formulario hori MUTUALIaren webgunean egongo da eskuragarri (**www.mutualia.eus**).

- 7. Aurkezteko epea 2025eko otsailaren 15ean** bukatuko da.

- 8. Epaimahaia** 4 pertsonak osatuko dute:

- MUTUALIAko zuzendaritzako ordezkari bat.
- MUTUALIAko Prebentzio Aholkularitzako ordezkari bat.
- Laneko arriskuen prebentzioaren alorreko erakunde ezagunetako (ITSS, OSALAN...) bi ordezkari.

Epaimahaiak lehiaketatik kanpo utziko ditu pertsonen pribatutasuna eta haien datuen babesa errespetatzen ez duten materialak, indibiduo eta taldeen estereotipo negatiboak erakusten dituztenak eta jazarpenetarako, identitatea ordezkatzeko eta legez kanpoko edozein jardueretarako erabili daitezkeen materialak.

- 9. Epaimahaiaren erabakia** behin betikoa eta apelaezina izango da, eta **www.mutualia.eus** webgunean eta sare sozialetan argitaratuko da 2025eko martxoaren 25ean, MUTUALIA SARIAK X. edizioaren banaketa-ekitaldian, MUTUALIaren 125. urteurrenarekin bat eginez.

Epaimahaiak hala erabakitzen badu, baliteke sariak inori ez ematea.

- 10. Jabetza intelektual eta datuen babesa:**

Lehiaketako parte-hartzaileek onartzen dute egile-eskubideen legezko titularrak direla eta lehiaketara aurkeztutako irudien, testuen eta Jabetza Intelektualari buruzko Legeak babestutako bestelako obren gaineko ustiapen-eskubideak dituztela. Halaber, onartzen dute ez dagoela aurkeztutako lanaren gaineko kargarik edo mugarik, eta MUTUALIA horien ondoriozko erantzukizunetik salbuesten du.

Parte-hartzaileen ardura izango da parte-hartzeko eta oinarri hauetan zehaztutakoa betetzeko indarrean dagoen legedian jasotzen diren baimenak lortzea: adibidez, identifikatutako edo identifika daitezkeen pertsonak erakusten dituzten irudien, hirugarrenen jabetzako irudien, datu-pertsonalen eta gune babestu edo mugatuen tratamendua. Lanetan pertsonen irudiak erabiltzeko edo pertsona jakinetan oinarrituta AA bidez sortzen diren irudiak erabiltzeko, pertsona horiek baimen informatua eman beharko dute. Pertsona errealek irudiei eta pertsona errealek antza duten irudiei aplikatuko zaie betekizun hori. Parte-hartzaileak dira lehiaketara aurkeztutako lanaren erantzuleak, eta MUTUALIA alderdi horri dagozkion erantzukizunetik salbuesten dute.

Era berean, parte-hartzaileek lehiaketaren oinarrietan ezarritako baldintza guzti-guztiak onartzen dituzte, eta berariaz baimena ematen diote MUTUALIAri lehiaketara aurkeztutako argazkiak, irudiak eta bideoak erabiltzeko, lehiaketa estatuko eta Laneko Arriskuen Prebentzioaren alorrean MUTUALIaren esku utzi diren jardueretan erabiltzeko; izan ere, Gizarte Segurantzaren kudeaketan laguntzen duen erakundea da, irabazi asmorik gabekoa, eta, beraz, askatasun osoa izango du haiek erreproduzitu edo hedatzeko, edozein dela ere formatua, euskarria eta hedatzeko lekua (erakunde ofizialak eta espazio publiko nahiz pribatuak barne), lurraldeari, denborari eta espazioari dagokien mugarik gabe. Halaber, baimena ematen du edozein komunikazio-kanal erabiltzeko, telematikoa barne.

Bestalde, MUTUALIaren betebeharra da parte-hartzaileen eskubideak errespetatzea, eta bermatu behar du soilik haiena dela obren jabetza intelektual; beraz, inoiz ere ez dugu eskatuko aurrez adierazitakoak bestelako eskusibotasun-, jabetza- edo erabilera-motarik.

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko argazki-lehiaketan parte hartzen duten pertsonen berariazko baimena ematen dute beren agerraldi publikoak filmatzeko eta edozein hedabide telematikotik emateko, eta, ondoren, MUTUALIaren eta lehiaketako erakunde kolaboratzaileen webgune korporatiboetan eta hedabideetan argitaratzeko. Horrenbestez, beren irudia filmatzeko eta tratatzeko eta datu pertsonalak jasotzeko eta tratatzeko berariazko baimena ematen dute.

Azkenik, lehiaketako parte-hartzaileek berariazko baimena ematen dute beren datu pertsonalak MUTUALIaren fitxategi batean sartzeko eta agiri honetan adierazitako helburuetarako tratatzeko eta helburu horien arabera argitaratzeko (adibidez, egilea identifikatzeko, parte-hartzaileen eta irabazleen zerrenda osatzeko eta antzeko tratamenduak egiteko). Parte-hartzaileek datu horietara irispidea izateko, haiek zuzentzeko, ezerezteko eta tratamenduari aurka egiteko eskubideak gauzatu ahal izango dituzte, **MUTUALIAko Seguritasuneko arduradunari** helbide honetara idatzita: **Henao kalea, 26, 48009 Bilbo**.

- 11. Oinarriak onartzea.** Ez da onartuko aurreko baldintzak betetzen ez dituen argazkirik edo irudirik. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek guztiak onartzea dakar. Oinarriotan aurreikusi gabeko edozein egoera antolatzaileek ebatziko dute. Edozer zalantza edo kontsulta izanez gero, mezua bidali **prebentziozkobegiradak@mutualia.eus** helbidera.